



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONSULTA ERANTZUTENeko IRIZPENA: EA ZILEGI DEN ERAKUNDEAREN IRAGARKI-OHOLEAN ARGITARATZEA PRESTAKUNTZA-IKASTARO BATEAN PARTE HARTZEKO ONARTUEI BURUZKO DATUAK.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2010eko martxoaren 25ean Euskal Herriko Unibertsitateak bidalitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Konsulta-idazkiak honakoa zioen:

“UPV/EHUK Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Prestakuntza Plan Integrala onartu zuen iazko urte amaieran, eta segidan 2010eko ikastaroen eskaintza argitaratu zuen.

....

Prestakuntza eskaintzan parte hartzea eskatzeko prozedura arautzen duen erregelamenduak finkatzen ditu ikastaroetan parte hartzeko eskaerak onartzeko ala ez onartzeko irizpideak. Horrek esan nahi du zerrenda horiek argitaratu egin behar direla web bidez edo EHUren iragarki-oholaren bidez (ehutaula izena dauka) eta eskaerak onartu diren ala ez ere jaso behar dela. Unibertsitateko administrazioak eta langileen ordezkariak ez dute garbi informazio hori argitaratzea legezkoa den. Eskabideak onartzeko irizpideen artean dago langileek unibertsitatean zerbitzuan emandako urte kopurua edo antzinakotasuna, eta, esan bezala, ez dago garbi egokia ote den izendun zerrendak argitaratzea langileen lan-egoerari buruzko bestelako informazioarekin batera. Orain arte argitaratu dituzten zerrendetan honako datuak edo informazioa argitaratu izan da:

- *Izena eta abizenak.*
- *Antzinakotasuna edo UPV/EHUn emandako zerbitzuak (Unibertsitatean izandako lehendabiziko kontratua).*
- *Harreman juridikoa unibertsitatearekin: karrerako funtzionarioa edo bitartekoa, lan-kontratu finkoduna edo aldi baterako kontratuduna.*



Horregatik, hezkuntza administrazio honek kontsulta bat egin nahi du argitzeko ea zein informazio sar daitekeen onartutakoen zerrendetan edo, beste era batera esanda, zein informazio ez den argitaratu behar horrelako zerrendetan eta aipatu ditugun argitalpen bitartekoetan (eranskinean dago azalduta erakundeko iragarki-oholari buruzko informazioa). Bestalde, erabaki dugu ez argitaratzea baztertutakoen zerrenda, nahiz eta interesdunari jakinarazten diogun ez dela onartua izan.

Bestalde, UPV/EHUk aplikazio informatiko bat du prestakuntza ikastaroetan parte hartzeko eskabideak eta inskripzioak kudeatzeko. Aplikazio informatiko horren bidez jakinarazten zaie, modu automatizatuan eta posta elektronikoko bidez, bai onartutakoei bai onartu ez direnei eskabidea onartu den ala ez. Eskaera ukatuta duten zenbait pertsonak jakinarazpenak egiteko modu hori salatu dute, jakinarazpena modu masiboan egiten delako eta "NORI" aukera erabilita, eta ez delako "ezkutuko kopia" (Bcc) erabiltzen horretarako. Hori dela eta, galdetu nahi dizuegu ea prestakuntzatik kanpo geratzen diren pertsonen datu-babeserako eskubidea urratzen den prestakuntzatik kanpo geratzen diren gainontzeko pertsonen erakusteagatik, posta elektronikoko masibo batean, erakundeko posta elektronikoko helbide guztiak. Argi utzi nahi dugu kasu guztietan erabili diren helbide elektronikoak erakundekoak direla, hau da, lanerako esleitutakoak direla: (nombre.apellido@ehu.es)".

Kontsulta-eskabideari atxikita doa *ehutaula* iragarki-oholaren funtzionamendua azaltzen duen dokumentua.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta-idazkia aztertu dugu eta esan dezakegu Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean UPV/EHU) bi alderdiri buruzko iritzia eskatzen diola Datuak Babesteko Euskal Bulegoari. Lehengo galdera da ea prestakuntza-ikastaroetan onartutakoen (baztertutakoen datuak ez baitira argitaratzen) datuak argitaratzea legezkoa den ala ez, eta bigarren galdera da ea legezkoa den posta elektronikoz eta era masiboan jakinaraztea ikastaroan parte hartzeko eskabideak onartu diren ala ez,



kontuan izanda, informazio horretaz gain, jakinarazpenak jasotzen duten guztien eskura jartzen direla denen helbide elektronikoko korporatiboak, ezinezkoa delako ezkutuko kopiarekin bidaltzea.

Lehengo galdera dela eta, kontsulta-idazkiak dio hiru datu argitaratzen direla: izen-abizenak, UPV/EHUn emandako zerbitzuak edo antzinakotasuna eta UPV/EHUrekiko harreman juridikoa argitaratzen dira. Argi dago datu pertsonalak direla. Hona hemen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 3.a) artikuluan jasotako definizioa:

“Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio”.

Datuak Internet (UPV/EHUn web-orrian) eta erakundearen iragarki-oholean argitaratu ohi dira, eta datuak argitaratzeak datu-lagatze edo datu-komunikazio bat dakar. Hona zer dioen DBLOren 3 i) artikulua datu-lagatzei buruz:

“Interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea”.

DBLOren 11. artikuluan dago araututa zer den datu-lagatzea, eta artikulua 1. artikulua dioenez, interesdunaren adostasuna nahitaezkoa da:

“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotutako dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.”

11. artikuluko 2. idatz-zatian jasotzen dira arau orokor horrek dituen salbuespenak. Edozelan ere, gure kasurako komeni da adieraztea idatz-zatiaren a) letrak dioela ez dela adostasunik beharko legeren batek baimentzen badu lagapena. Beraz, aztertu behar dugu ea ba ote dagoen kontsultan aipatzen diren datu horiek lagatzeko baimenik ematen duen legerik. Horretarako, kontuan hartu behar da datu-tratamendua zer-nolako prozeduran gertatzen den, eta ikusi da prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateko prozedura bat dela; hori hala izanik, argitu behar den hurrengo gauza da ea prozedura hori norgehiagoka prozeduratzat jo daitekeen ala ez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arau bereziak ezartzen dituelako era horretako prozeduretan jakinarazpenak egiteko. Hona hemen lege horren 59.6 artikulua xedatutakoa:

“Jakinarazpenaren orde argitalpena jo daiteke, hurrengo artikuluan ezarritako moduan, eta ondorio berak izango ditu kasu hauetan:

...

b) Edozein motatako hautaketa-prozesu edo norgehiagoka-prozeduretako egintzak direnean. Kasu horietan, prozeduraren deialdian esan beharko da zein iragarki-ohol edo komunikabidean argitaratuko diren jakinarazpenak aurrerantzean; esandako tokietatik kanpo egindako jakinarazpenek ez dute baliorik izango.”

Aztertzen ari garen prozedura norgehiagoka prozedura bat den ala argitzeko, Datu Pertsonalak Interneteko Aldizkari Ofizialetan, Erakunde Web-orrietan eta Bestelako Bitarteko Elektronikoko eta Telematikoen argitaratzei buruzko Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziaren apirilaren 25eko 2/2008 Gomendia erabil



dezakegu, argigarria izan daitekeelako. Hona hemen 14.1 artikulua xedatutakoa:

“Besteak beste, norgehiagoka prozeduratzat jo behar dira enplegatu publikoak administrazio publikoan sartzeko hautaketa prozesuak, enplegatu publikoen lanpostuak betetzeko prozedurak, aparteko sariak eta bekak eskuratzeko prozedurak, administrazio kontratuei buruzko prozedurak, ikastetxe publikoetan edo itunpekoetan eta unibertsitate publikoetan plazak eskuratzeko prozedurak eta eskatzaile askoko eta plaza edo kreditu kopuru mugatuko prozedurak, baldin eta horietako bat esleitzeko, merezimendu edo betekizun batzuk hartu behar badira kontuan eta zenbatu edo balioztatu behar badira”.

Kontsulta-idazkiak honakoa dio: *“zenbaitetan onartzen ez den eskaera kopurua handia da, plaza kopurua oso mugatua delako”*. Hori kontuan hartuta, esan daiteke kontsulta-idazkian aipatzen den datu-tratamendua norgehiagoka-prozeduratzat hartu behar dela; eta, beraz, 30/1002 Legearen 59.6 artikulua ezarri behar zaiola. Ondorioz, 30/1002 Legea eta artikulua horrek ematen dute baimena datuak lagatzeko eta datuen titularraren adostasuna eskatzetik salbuesten dute, DBLOren 11.a) artikulua xedatzen duenez.

Argitu beharreko beste kontu bat da ea datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin bat datozen datuak argitaratzeko modua eta argitaratzen diren datuak.

Datuak argitaratzeko moduari dagokionez, esan behar da garrantzi handiko kontua dela, datuak atzitzeko modua ere horren araberakoa izango delako (librea, mugatua, eta abar). Zentzu horretan kontsulta-egileak dio datuak erakundearen web-orrian argitaratzen direla, zehatzago esanda, iragarki-ohol birtual batean argitaratzen direla. Iragarki-ohol birtual horretan dauden datuak nola atzitu daitezkeen aztertu dugu, eta ikusi dugu ikastaroetako informazioa eskuratu ahal izateko, erabiltzailearen identifikazioa eta pasahitza eskatzen direla. Beraz, web-orriaren administratzaileak zuhurtziaz jokatu du eta traba bat jarri du edonork ez dezan eskuratu han dagoen informazioa. Edozelan ere, web-orri horretako sarbide-sistemak ziurtatu behar du prozeduran interesa dutenak baino ez direla sartzen bertan. Laguntzeko asmoz, aipatu nahi dugu Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziaren apirilaren 25eko 2/2008 Gomendioan antzeko kasu baterako proposatzen den irizpidea. Gomendioaren 15.4 artikulua xedatzen du prozeduran interesa dutenak baino ezin izango direla sartu, eta bertan sartzeko nahitaezko betekizuna izan behar dela herritarraren identifikazioa eta autentifikazioa, eta horretarako, sinadura elektronikoa aurreratuko sistemak erabili behar direla, adibidez, nortasun agiri nazionalak dauzkanak, edo beste batzuk, esate baterako, administrazioak alde aurretik esleitutako sarbide-gako pertsonalizatu bat erabiltzea, edo alde biek bakarrik ezagutzen duten informazioa ematea, edo antzeko beste mekanismo batzuk.

Antzinakotasunari edo langilearen lan-egoerari buruzko datuak argitara daitezkeen ala ez argitzeko, edo beste era batera esanda, argitzeko zein datu argitara daitezkeen eta zein ez, ikusi behar da ea betetzen den DBLOren 4.1 artikuluan xedatutako datuen kalitatearen printzipioa.

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko”.



Argitalpenak babes juridikoa badu ere, horrek ez du esan nahi edozein informazio zabaltzeko mugarik gabeko gaikuntzarik ematen denik, kontrara baizik, arrazionaltasunaren irizpidea gehitu beharko baita datuak erabiltzean. Irizpide hori kalitatearen printzipioaren barruan dago.

Hori dela eta, kontsulta-idazkiaren arabera, argitaratu nahi diren datuak ezinbesteko datuak dira, ezen horien arabera ezartzen baitira ikastaroetan parte hartuko duten eskaerak onartzeko ala baztertzeko irizpideak. Bestalde, irizpide horiek dakarten informazioak ez du eraginik DBLOren 7. artikuluan araututako datuetan, hau da, bereziki babestutako datuetan, ez direlako ideologiari, erlijioari, sinesmenei, sindikatu afiliazioari, bizitza sexualari edo osasunari buruzkoak. Nabardura hori garrantzitsua da, bereziki babestutako datuen erregimena ere berezia delako adostasuna adierazi beharri buruzko oinarrizko printzipioarekiko. Hona hemen DBLOren 7.3 artikulua xedatutakoa:

“Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori”.

DBLOren 7.2 artikulua aipatzen dituen datuei (ideologia, sindikatu afiliazioa, erlijioa eta sinesmenak) buruzko irizpidea zurrunagoa da, adostasuna nahitaez berariaz eta idatziz adierazi behar baita.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak badu horrelako datuak argitaratzeari buruzko txosten bat: 0152/2008 txostena. Txostenak aztertzen du ea zilegi den ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan onartutako ikasleen zerrendak xehatuta argitaratzea, hau da, osasun datuak ere ageriaz utziz (ezgaitasunari buruzko datuak), eta txostenak ateratzen duen ondorioa da hori egin ahal izateko ukituen adostasuna behar dela eta ez dela onartzen dena delako dekretu arautzaileak gaikuntzarik ematen duenik. Gure kasuan, kontuan hartuta argitaratu beharreko datuak hautaketa-irizpideei dagozkienak direla, eta datuetako bat bera ere ez dela bereziki babestutako datua, uste dugu datu horiek web orrian argitaratzeko, datu-babesaren arloko araudia hartu beharko dela kontuan. Edozelan ere, gogoan izan behar da DBLOren 4. artikuluan xedatzen datuen kalitatea ondoen betetzen duen aukera dela irizpide bakoitzaren arabera lortutako emaitzak argitaratzea eta ez hautagai batek zein egoera duen antzinakotasunagatik, lan egoeragatik eta abar. Horrela jokatzuz gero, alde batetik, gardentasunaren eta argitalpenaren bete beharrak beteko liriteke, eta gerora, aukera eman espediente zehatzak kontsultatzeko, halakorik eskatzen duen hautagaiari, eskatuz gero.

II

Agentziari argitzeko eskatzen zaion bigarren alderdia da ea zilegi den posta elektronikoa bidez era masiboan jakinaraztea ea eskaera onartu ala ez. Izan ere, horrela eginez gero, funtsezko informazioa emateaz gain, jakinarazpena jasotzen duten denei erakusten zaielako gainontzekoen helbide elektronikoa korporatiboa, ezin delako ezkutuko kopia bidezko jakinarazpenik egin.



Kontsulta-egileak dioenez, jakinarazten den helbide elektronikoaren datua helbide korporatiboa da, eta hori garrantzitsua da, datu hori harremanetarako datua delako, eta zenbait autorek diotenez, eta horrelako datuak berariaz daudelako datu-babesaren esparrutik kanpo.

DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua honakoa xedatzen du:

“Erregelamendu hau ez da aplikatuko pertsona juridikoei buruzko datuak dituzten tratamenduekin, ez eta pertsona juridiko horientzat lan egiten duten pertsona fisikoen datuak baino jasotzen ez dituzten fitxategiekin, baldin eta pertsona fisiko horiei buruzko datuak izen abizenak, betetzen duten lanpostua, posta helbidea edo posta elektronikoa, eta laneko telefono-zenbakia eta faxa badira”.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ere hainbat aldiz eman du bere iritzia datu-babesaren esparrutik kanpo daudela dioen tesiaren alde. Adibidez, hona hemen 2006ko maiatzaren 9ko Ebazpenean enpresako posta elektronikoaren datu-tratamenduei buruz dioena: *“enpresako erakunde helbideak direnez, ez dira datu pertsonaltzat jotzen. Beraz, erabaki da ikerketarako aurretiaz egin beharreko jarduerak artxibatzea”.*

Horregatik guztiagatik, eta irizpen honetan jasotako gogoeta juridiko guztiak kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak honakoa ondorioztatu du:

ONDORIOA

- 1.- Prestakuntza ikastaroetan parte hartzeko onartuen zerrenda Euskal Herriko Unibertsitatearen web orriko iragarki-oholean argitaratzea datu-babesaren arloko legediarekin bat dator, txosten honetan jasotako baldintzen arabera.
- 2.- Interesdun bakoitzari jakinarazpena egitean, posta elektroniko korporatiboko gainontzekoen helbideak jakinarazteak ez du datu-babesaren arloko araudia urratzen.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko apirilaren 26an